

## “OSO INTERESGARRIA IZAN DA HTML KODEEN ERABILERA IKASTEAN”



*Ana Alza | Guidoak | Egape | DBH*

Gogor egin dute lan Grapho Planetan eta Mito fasean ere bide beretik aritzeko asmoa dute. Hori dio Egape ikastetxeko Guidoak taldeko arduradun Ana Alzak; talde horrek, hain zuzen, DBHn puntuazio handiena lortu du.

***“Graphoa” amaitutakoan puntuazioa hain estua izateak zer sentazio eragin dio taldeari?***

Lanean gogor jarraitu behar dugula, lehenengo postuetan bukatzeko.

***Zer moduz moldatu zarete wikia erabiltzen?***

Gustora, gauza berriak ikasi ditugu: adibidez HTML kodeak sartzea.

***Ba al du zailtasun gehigarri eta ustekabekorik?***

Egia esan ez.

***Zer trebetasun berri eskatzen dizkie ikasleei?***

Wikiaren itxura hobetzeko, HTML kodeak txertatzen ikasi dugu... oso interesgarria irudi zaigu.

***Zure ustez puntuazio-mailari eutsiko diozue Mito planetan?***

Ez da bat ere erraza izango... baina ahalengiduko gara noski!

***Bereziki motibatuta al dago taldea oraingoz irabazlea dela jakinda?***

Beti egon gara motibatuak, gustora gaude lanean.

[Egape Ikastolakoan lana ikusi \["Guidoak"\]](#)